

BBK-Museoa **Bekak** 12/13

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Bilboko Arte Ederren Museoa, museoaren mendeurrena dela-eta hasitako lanarekin jarraituz eta bertan ordezkatutako artista, lan eta bildumei buruzko azterketa eta ikerketak garatu nahian, ikerketa bekak emateko lehiaketa deitu dute. Emango diren beken xedea hau da:

· Ricardo eta Ramiro Arrúe (esmalteak eta zeramikak), Quintín de Torre, Higinio Bastera, Moisés de Huerta, Ricardo Inurria, Joaquín Lucarini, Álvaro Alcalá Galiano, Juan José Landa eta Ernesto Pérez Orúeren monografiak eta katalogo arrazoituak egiteko azterketak.

· Arte Modernoko Museoren Bilduma. Erbestealdia eta aberriratzea.

· Horma-pintura eta dekorazioa Euskal Herrian XX. mendean.
a) 1900-1936
b) 1936-1978

· Museoko Euskal Artista Garaikideei elkarrizketak. Bizitza eta lana. Gidoia, grabaketa, etab.

BEKEN OINARRIAK

1. HAUTAGAIK

Beka hauek jasotzeko aukera izango dute Europar Batasuneko herrialderen batean jaio edo bizi direla egiazta dezaketen guztiek eta beharrezko agiriak aurkezten dutenak.

2. IRAUPENA

Bekek urte bateko iraupena izango dute gehienez. Azterketaren garapenak hala eskatzen badu, epea luzatzeko aukera aztertuko da.

3. DIRU-KOPURUA ETA SORTZAPENAK

Hilean 1.000 euro-ko zenbatekoa izango da. Bekadunak amaitutako hiruhilekoetan jasoko du bekaren zenbatekoa, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Bilboko Arte Ederren Museoa 9.6 atalak hizpide dituen aurrerapenak onartu ondoren.

4. DOKUMENTAZIOA

Hautagaiek dokumentu hauek bidali beharko dituzte Bilboko Arte Ederren Museora:

- 4.1.** Oinarri hauen bukaeran gehitzen den eskaera agiria.
- 4.2.** Eskatzailearen Curriculum vitae-a.
- 4.3.** Aukeratutako azterketa, ikerketa edo lanari buruzko memoria. Baldin eta memoria hau ez bada aurkeztu edo ez badira gauzak behar den moduan zehaztu, eskabidea atzera bota ahal izango da.
- 4.4.** Eskatzailearen lanaren zuzendariaren berariazko adostasuna izan behar du, beka ematen bada.
- 4.5.** Espediente akademikoa eta goi mailako titulua. Beka emateko eskatu den tituluaren espediente akademikoaz gain, goi mailako beste ikasketa osagarri batzuk ere baloratuko dira, bai eta eskatzen den espezialitatean garatutako jardueretan izandako partehartzea eta Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzak jakitea ere.
- 4.6.** Dokumentazio guztia hirukoiztua aurkeztu behar da.

5. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA

Bekei buruzko dokumentazioa 2011ko azaroaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da Bilboko Arte Ederren Museon.

6. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

- 6.1.** Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa eta Bilboko Arte Ederren Museoa izendatuko dute epaimahaia, eta honek 2011ko abenduaren 23a baino lehen jakinaraziko du epaia.
- 6.2.** Hautagaiek, beka eskatzearen bakarrik, uko egingo diote epaimahaiaren epaien aurkako jarduera judizialak zein estrajudizialak egiteari.
- 6.3.** Epaimahiak beharrezkotzat jotzen badu, hautagaiei eta adjudikatzaileei deitu ahal izango diete beharrezko azalpenak eman ditzaten.

7. EMANDAKO BEKEN ZATIEZINTASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

- 7.1.** Bekak zatiezinak dira eta norbere kabuz aurkezten diren pertsona fisikoei emango zaizkie.
- 7.2.** Ezin izango da beka hau jaso beste bat izanez gero.

8. LANEN JABETZEA

- 8.1.** Lanen jabeak egileak eurek izango dira, baina ezin izango dituzte kaleratu edo erakusgai ipini Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren edo Bilboko Arte Ederren Museoa baimenik gabe.
- 8.2.** Lanak argitaratu edo erakusgai jartzeko, jasotako bekaren aipamena egin beharko da.

- 8.3.** Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Bilboko Arte Ederren Museoa edozein izaeratako lanen argitalpena osoa zein partziala egiteko eskubidea dute, aurrez eskubide hori erabiliko dutela jakinaraziz egileei. Era berean, eskubidea dute lanak beraien egoitza sozialetako liburutegietan edukitzeko, jendearen esku.

9. BEKADUNEN BETEBEHARRAK

- 9.1.** Deialdi honen idazatietan jarritako arauak bete beharko dituzte.
- 9.2.** Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren eta Bilboko Arte Ederren Museoa ohartarazpen ofiziala jaso ondoren, idatziz jakinarazi beharko dute beka onartu dutela.
- 9.3.** 2012ko urtarrilaren 1ean hasita baliatuko dira bekaren onuraz, eta aurreitazko konpromizeuek edo gaur egungo proiektuek zein etorkizunekoek ez dute eragotziko bekaren betebeharrak etengabe betetzea, bekak irautean duen denboraldi oso-osoa.
- 9.4.** Aurreikusitako lana egin beharko da, beti ere, bekaren helburua kontuan izanik.
- 9.5.** Egindako lanen ohar, aurrerapen eta emaitzak unero izango dira Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren zein Bilboko Arte Ederren Museoa eskueran.
- 9.6.** Bekari onura ateratzen hasi eta hiru hilabeterik behin igorri beharko da Bilboko Arte Ederren Museora, hiruhilabeteko bakoitzean egindako lanei buruzko aurrerapen eta adierazpena. Bikoiztua bidali beharko da. Ez badira aurkezten, 3. idazatian apaituko ordainketak etengo dira.
- 9.7.** Emandako beka bukatzean, azken hiruhilabeteko aurrerapenaren orde azken lana entregatuko da. Lan hori espazio bikoizta utziz mekanografiatu behar da, hurrenez hurrean zenbatuko dira orrialdeak eta koadernatu egin beharko da. Kopia bi eman beharko dira.

10. JAZOERAK

- 10.1.** Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Bilboko Arte Ederren Museoa, deialdi honen tramitazioan edo lanak garatzean gertatzen diren gora-beherak konpondu ahal izango dituzte, ondoren errekurtsioa jartzeko aukerarik utzi gabe.
- 10.2.** Baliteke epaimahaiak beken adjudikazioa erabat edo partzialki hutsik dagoela adieraztea.

ESKAERA FITXA

Jaun / Andreok:

Ikerketa beken deialdiaren berri izan dut, eta nire izena eman nahiko nuke. Eskaera honen bidez, oso-osoa onartzen dut deialdiaren oinarriak eta epaimahaiak emango duen erabakia. Era berean, zinpeko aitorten izaera ematen diet formulario honetako datu guztiei.

NORTASUN DATUAK

Abizenak

Izena N.A.N.

Jaiotze-dataGizonezkoa Emakumezkoa

Ohizko helbidea.....

HerriaP.K.Probintzia.....

Etxeko tel.Sakeleko tel.

Posta elektronikoa

Sinadura

ERANTSI BEHAR DITUZUN AGIRI ETA DATUAK

- Curriculum vitae, egindako ikasketak, ikastaroak, etab. adierazi behar dira. Ikasketa-espedientea, tituloen fotokopiak, etab. erantsi behar dira.
- Memoria:
 - Lanaren izenburua.
 - Zein zentrotan egingo duzu lana.
 - Laneko gaiaren gaur egungo egoeraren laburpena.
 - Erabili nahi duzun lan-metodoaren zenbait zehaztasun.
 - Lanaren zuzendaria: izen-abizenak, kargua eta zentroa.
 - Lana egiteko dituzun baliabideak.
 - Gaiari buruzko oinarriazko bibliografia: dagoena, eta unean bertan erabiltzekoa.
 - Dagoen material grafikoa.
- Ikasketa espedientearen agiria edo, bestela, zentroak edo horretarako gaituta dagoenak egindako txostena.
- Oharrak.

Dokumentazioa itzultzea nahi izanez gero, nola egin adierazi behar da eskabide-orrian.

BBK-Museo Becas 2012/2013



**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**